

B

BARREN

Argeles-sur-Mer kontzentrazio esparruko testigantza

Maria Luisa Garrido



Arauri

HURRENGO
SESIOA

DOAN

Foto
Depilazioa

Azaroaren 15etik
abenduaren 15era

Tel.: 943 741 789 - San Bartolome, 6 - ELGOIBAR

Depilaz



HIERROS BERAZA, S.L.

Burdinak eta metalezko egiturak



- ∞ Metalezko atearak
- ∞ Metalezko eskailerak
- ∞ Negutegiak
- ∞ Balkoiak
- ∞ Metalezko teilatuak
- ∞ Edozein eratako egitura metalikoen konponketa

634 errepeidea, 50. km-a, z/g
Mendaro

☎ 943 604 600
670 487 949

Eseki izarak!!!

Aspaldion, eta batez ere Legebiltzarreko Gobernu aldaketatik, iruditzen zait gero eta ugariagoak direla euskal presoek eta senideen aurkako erasoak. Eta, zer arraio, ez da irudipen hutsa!

Ikusi besterik ez dago iragan udan Ertzaintzak gure herrietan izan zuen jokabidea, edota espainiar Estatuko kartzelatan ematen ari den bizi-baldintzen zigortze etengabea. Eta nola ahaztu hainbat eta hainbat senide jasaten ari diren mespretxuak, irainak eta abarrak. Azken asteotan, beraien senideak bisitatzera doazenean, goitik behera biluzarazten dituzte bisitara sartu ahal izateko. Hori dela eta, duintasun osoz, hainbat bisitari uko egin diete. Adibide garbia dut: Hodei Otegik orain aste gutxi atal honetan bertan egindako testigantza. Zer pentsatua eman zidan; amorrua, kezka, nahigabea... hitz gutxi dira barrutik pentsatzen nuena azaltzeko.

Iragan ostiraleko kontzentrazioan zegoen batek aipatu zuen nola Juanmari Mendizabal erabat isolatuta duten berriro ere Lugon kartzelaratu zutenetik, gainontzeko preso politikoekin harremanik izateko eskubiderik gabe.

Hori gutzia dela eta, ezinbesteko ikusten dut herri-harresi bat sortzea, izan ere aipatu ditudan bi kasuok hainbat eta hainbat adibideren isla dira-eta: kondena beteta edo gaixorik larri egonda ere, preso mantentzen dituzten euskal herritarrak, bisita mugatuak, komunikatzeko

ezintasunak... Herri-harresi honi forma ematen joateko, zuen balkoi eta leihoetan euskal presoek izara jartzera animatzen zaituztet, neronek egin dudak bezala.

Beldurrak eta kezkek alde batera utzi eta gizarte honen gehiengoak babesten duen logoa plazaratu dezagun!



Ion Ulibarri

"Nire txanda" atalean idatzi nahi baduzu, jarri zaituzte gurekin harremanetan: 943 74 41 12 edo barren@elgoibarkoizarra.com

**“Herri-harresi hau eratzen hasteko,
balkoian euskal presoek izara jartzera animatzen zaituztet”**

BETE DUZU ALBISTEAK

E-POSTAZ

JASOTZEKO HARPIDETZA?

**EGUNERO
BIZPAHIRU
ALBISTE JASOKO
DITUZU!**

www.elgoiBARREN.net

Albisteak ePostaz jasotzeko

Izena

ePosta

Harpidetu

Harpidetza eten

**Egin
klik
eta
ikusiko
duzu**

 **ELGOIBARKO IZARRA**
KULTUR ELKARTEA

HAURTZARO GALDUA



Hautzaro gabeko umea izan zen María Luisa Garrido. Jaioberritan amak abandonatu egin zuen, eta 2 urte bete zituenean, Francisco Aros-tegi eta Josefina Anguera senar-emazte eibartarrek atera zuten umezurtegitik, alabatzat hartuta. Zorionak, ez zuen gehiegi iraun, hala ere. 6 urterekin, bete-bete harrapatu zuen Espainiako Gerrak, eta bonbengandik ihesi eman zituen ondorengo urteak, amarekin. Ihesean, Frantziako Argeles-sur-Mer kontzentrazio eremura iritsi ziren. Aita, berriz, Santoñan (Kantabria, Espainia) hartu zuten preso. Umezaroa ostu zion 36ko Gerrak, eta orduko gogoratzea mingarria egiten zaion arren, ez du ahazteko asmorik. “Memoria historikoa berreskuratzea da gerra galdu zutenei egin dakiekeen omenaldi onena. Nire aita-amek merezi dute horrenbeste”.

Ainara Argoitia

Bazterketarik gordinena bizi izan zuen umetan María Luisak. Bate-tik, umezurtegitiko umea zelako, eta bestetik, adopzioan hartu zuen ama –Josefina Anguera Barrutia– sozialista zelako, Errepublikaren aldekoa. Hitz baten: *gorria*. “Inoiz ezkututzen ez direnetakoa zen nire ama. Banderak jartzen ibiltzen zen han-hemen, propaganda banatzen ere bai, eta, tarteka, Bilbora ere joaten zen, mitinetara. Emakume gogorra zen, baina, eta ihes egiteko ordua iritsi zenean ere, ez ninduen abandonatu, berarekin eraman ninduen”, azaldu digu María Luisak.

Eibar inguruan bonbak entzuten hasi bezain laster egin zuten ihes ama-alabek, zuten guztia bertan lagata. Ordurako, María Luisaren aita preso zuten Santoñan. Eibartik Durangora iritsi ziren, eta han lagun batzuen etxean hartu zuten ostatu. “Gogoan daukat amak nola esan zion etxeakoandrearri, Enkar-

“Bonbak etengabe jausten ziren, eta errepede bazterreko zangetara tiratzen ninduen amak”

nari, alde egin beharra zegoela. Haren senarra mendira joana zen, frentera, eta alaba hartu eta gurekin etorri zen Bilbora”. Franco-ren tropek, baina, aurrera egiten jarraitzen zuten, eta ezin izan zuten luzaro gelditu Bilbon. “Beldurtuta, Enkarna eta bere alaba Durangora bueltatu ziren, eta gukartzelona egin genuen ihes. Urteetara jakin genuen Enkarnaren senarra gerran hil zutela”.

1937ko ekainaren 11n hasi zuten Franco-ren tropek Bilboren kontrako eraso, lurrez

zein airez, eta zortzigarren egunean hartu zuten. Egun gutxira, Bizkaiko eta Gipuzkoako foruak ezereztu zituen Francok, eta “probin-tzia traidore” izendatu zituen, altxamendua-rekin bat ez egitearren. Ordurako, Bartzelona zeuden María Luisa eta bere ama. Bilbotik Bartzelonara arteko bidea trenez egin zutela uste du.

Bartzelona zen errepublikaren gotorlekua. Han ere, giroa gaiztotzen hasia zen, baina. “Bonbak etengabe jausten ziren, eta besotik tiraka izaten nuen beti ama. Errepide bazterreko zangetara tiratzen ninduen, eta hantxe egoten ginen, pasa arte”. Hala, gobernu zentralak Katalunia-koarekin batera jarritako itsasontzi bat hartu eta Frantziara ihes egitea erabaki zuen, Franco-ren tropek Bartzelona hartu aurretik (1939ko urtarrilaren 26a). “Itsasontzia hartzeko ilara egiten geundela, gure atzeko emakume kataluniar batek

“canalla” berba erabili zuten niri zuzenduz. Eta gure ama hain zen beroa... ia-ia lepotik heldu zion. Beste emakume batek azaldu zion *canalla* umea zela katalanez, eta baretu zen. Zenbat jende hil ote zen han itota, itsasontzira igotzeko ahaleginean uretara jausita”, gogoratu du.

Itsasontzian milaka errefuxiatu abiatu ziren Frantziarantz. “Go-sea, hotza... ezer onik ez zen han. Pare bat egun egingo genituen. Uste dut manta bat-edo eman zigutela, babesteko, baina apenas geneukan ezer”. Frantziara iristean, “ostatu antzeko batean” sartu zituzten. “Hiru pisu zituen etxeak. Behe-behean jangela handi bat zegoen, lehenengo pisuan emakumeak eta haurrak geunden, eta bigarren goan gizonezkoak sartu zituzten. Hango oroitza-penak ez dira hain txarrak ere. Dena den, hartu nuen han ere danbateko ederra. Beste ume batzuekin jolasean ari nintzela, barandautik behera jausi nintzen, hirugarren pisutik. Hango marka ere gordetzen dut buruan. Hala esaten dit pelukerak behintzat”.

Aterpe hartan izaten zen sartu-irtenik. Emakumeek inguruko barrieretan lan egiteko aukera izaten zuten, eta Maria Luisa amarekin joaten zen. Hara ere iritsi zen, baina, alde egiteko abisua. “Pariseran joan behar genuela esan ziguten, eta gure amak ez zuen birritan pentsatu. Geneukan apurra jaso eta alde egin genuen. Parisen, nire amak lana topatu zuen Citroenean, eta nire kargu egin ezin zenez, Caritasen eskola batera bidali ninduen. Hango mojak frantsesak ziren, baina gaztelaniaz egiten ziguten guri”, gogoratu du.

Kontzentrazio eremuan

Parisen Bigarren Mundu Gerrak harrapatu zituen, historiako gatazka armatu odoltsuenak. 60 milioi lagun inguru hil ziren gerran, gehienak zibilak. Parisen giroa gaiztotzen hasi zenean, Caritaseko eskolan zeuden umeetako askoren gurasoak euren seme-alabak jasotzera joan ziren. Maria Luisaren ama ez zen agertzen, ordea, eta Caritasekoek eurek eraman zuten umea amarengana. Ordurako, Josefina, maletak egiten zebilen, ihes egiteko. Ez zekien, ordea, bere bizitzak okerrera egingo zuela handik aurrera. “Citroeneko arduradunak lasai egoteko esan zien beharginei, tartean nire amari. Leku hobera eramango zituztela agindu zieten, eta halaxe, kamioietan sartu eta Argeles-sur-Merrekoko kontzentrazio eremura eraman gintuzten, Perpinyatik gertu. Hondartzan bertan zegoen kontzentrazio eremua, eta errefuxiatuek eurek eraiki behar izan zituzten hango egurrezko eta lonazko barrakoiak.

Gizonak eta emakumeak bereiztu eta barrakoietan sartu zituzten. “Etzaleku ziztrin batzuk eta komunetzat erabiltzen genuen zulo bat kanpo aldean. Han ez zegoen ezer”. Tropa kolonialak jarri zituzten zaintzen, marokoarrak eta senegaldarrak gehienak. “Beltz-beltzak ziren, eta begi horiak zituzten. Ikaragarriko beldurra nien nik. Eredu hartatik ihes egiten saiatzen ziren gizonak bertan hiltzen zituzten”, gogoratu du. Han ez zuten ez argindarrik eta ezta edateko urik, eta itsasoko ur gaziarekin prestatzen zituzten jatekoak. “Kaniken moduko garbantzuak ekartzen zizkiguten, gogor-gogorrak, eta guk latorrizko ontzietan sartu eta eskuak berotzeko pizten genuen su gainean jartzen genituen, biguntzeko. Okela apur bat ematen zigutenean, hezurak ere gorde egiten genituen. Kamioen gurpilen gomarekin abarkak egiten zizkiguten”.



Maria Luisa Garrido bera Argeles-sur-Merera egindako bisitan.



Francisco Arostegi eta Josefina Anguera, Maria Luisa Garridoren gurasoak.



Argeles-sur-Mer kontzentrazio eremuaren gaineko dokumentaleko irudiak.

Ordura arte mila ezintasun pasata egon arren, bertan ezagutu zuen bakardadea Maria Luisak. Ama gaixotu eta ospitalera eraman zuten, eta amaren berotasunik gabe gelditu zen bera. Barrakoi bereko bi ahizpa kataluniarrek zaindu zuten. Pena bakarria dauka Maria Luisak, haien pista betiko galdu izana han. Paco Lobatonen programaren bidez ere saiatu zen, baina ezer ez. Ospitalean, berriz, jolasean ematen zuten eguna umeek. “Hildakoak zeuden lekura jaitsi, eta han ibiltzen ginen. Gaur egun ume bati ez zaio hildakoa ikusten lagatzen, baina guretzako gauza normala zen hura. Egunero hiltzen zen jendea han”, gehitu du.

Frantziatik Euskal Herrira

Argeles-sur-Mer noiz laga zuten ez dauka garbi Maria Luisak, baina 1939-40 aldera izango zela uste du, orduan alde egin zutelako handik hemendik joandako gehienek. Argeles-sur-Merreko barrakoiak Vichyren Frantziako nazien aldeko Gobernuaren esku gelditu aurretxoan, hain zuten. Ordura arte han egondako batzuk beste kontzentrazio eremu batzuetara eraman zituzten kamioietan sartuta, beste batzuk Frantziako Armadan izena eman zuten, nazien kontra borroka egiteko (horietako askok Mauthausen-Gusengo kontzentrazio eremuan bukatu zuten gero preso), eta beste zenbait euren jaioterrira itzultzeko aukera eman zieten. “Kamioietan sartzen zituztela ikusita, nire amak etxera itzultzea erabaki zuen, ordurako oso zabaldua zegoelako haietako jende asko hil egiten zela”, azaldu digu. Francok, gainera, odol deliturik ez zutenei barkatuko ziela agindua zuen, nahiz eta gero ez zuen amnistia hori bete.

Euskal Herrira itzultitakoan ere ez zuten erraztasun handirik izan. Bilbora itzuli ziren, eta izebaren etxean egin zituzten egun batzuk. Handik Elgoibarrera etorri ziren, aitaren baserrira, Aitola-Erdi baserrira, eta, ondoren, Eibarrera. Ez zen erraza izan. Maria Luisaren ama baztertuta zuten Eibarren, *gorria* izateagatik, eta Maria Luisa bera behar baino urtebete aurretik atera zuelako umezurtegitik. Eibarren zuten etxea ere kendu zien etxe-jabeak bueltatu zirenerako. “Josefa Azpitarterena zen, eta gerra denboran dena kendu zigun”. Errekadista hasi zen lanean bere ama, arrain-saltzaile ere jardun zuen gero, eta Eibarko Beisteginean lana eman zioten ondoren, aurrez ere ibilia zelako han. Ama lanean zegoen bitartean, Maria Luisak lantegiko atean itxaroten zion. Aita Norma tailerrean hasi zen beharrean, Eibarren. Maria Luisa, berriz, eskolan jabetu zen Josefina eta Francisco ez zirela bere benetako gurasoak. Eskola-agirietan beste abizen batzuekin ageri zelako bera, Garrido Martin abizenekin, hain justu ere.

Amaren bila

Ezkontzeko ordua iritsi zitzaionean ere, Maria Luisari trabak baino ez zizkieten jarri. Amaren baimena eskatu zioten, eta Josefa Angueraren hitza ez zen nahikoa. Alabatzat hartu bazuen ere, gerra zela-eta paperak behar bezala egin gabe alde egin beharra izan baitzuten biek. “Ezkondu nintzean, Garrido Martin abizenak hartu nituen, eta jaiotze-agirian agertzen ziren datu apurrei tiraka, Herrera de Pisuegara arte (Palencia, Espainia) ere joan nintzen gerora ama biologikoaren bila, baina ezer ez. Elgoibarko Udalaren bitartez, Donostiako helbide bat ere lortu nuen, baina han ere ezer ez. Saiatu nintzen Paco Lobatonen bidez ere, baina datu haiekin ezin zutela ezer egin erantzun zidaten, kartaz. Ama hil zenean, 1986ko azaroaren 9an, haren aldeko lehengusinek dena kendu zidaten, nituen agiri apurrak eta argazki guztiak barne. Orduan Diputaziora ere jo nuen, aitaren aldeko lehengusina batek lagunduta, nire benetako ama zein zen jakitzeko, baina atea itxi zidaten. Nire ama zein izan zen besterik ez dut jakin nahi. Asko eskatzea al da hori? Nire bi seme-alabek azaleko gaixotasun bat dute, gainera, eta nire aldetik datorrela esan diete”.

Maria Luisak ezin dio negarrari eutsi, eta hara-hona egin dituen oteretatik lortutako informazio apurrari bueltaka ari da. Billabonako kapilau batek ama bakean uzteko gomendioa egin zion ezkondu berritan senarrarekin batera amari buruz galdezka joan zen batean. Diputazioan ere erantzun bera jaso du joan den beste alditan. Era berean, Eibarko etxe-jabeak ama uste baino gertuago zuela ohartarazi zion hil aurretik. Izebaren hitzak ere gogoan ditu. Gerra hasi zenean pertsona bat bere bila etorri zela esan zion hark, eta akorduan dauka, era berean, umetan opariak iristen zitzaizkiola etxera. Nekea igartzen zaio ahotsean, baina ez du ama bilatzeari lagatzen asmorik. “Dena ulertzen dut, eta ez dut ezer nahi. Nondik natorren jakin nahi dut, besterik gabe”.

NORTASUN AGIRIA:

- ✓ **IZENA:** Maria Luisa Garrido Martin
- ✓ **ADINA:** 77 urte.
- ✓ **JAIOTERRIA:** Donostia. San Antonio de Abad ospitalean jaio zen, bere jaiotze-agiriaren arabera, eta amak abandonatu ostean, San Inazio parrokiaren bataiatu zuten eta Billabonako umerzurtegi batera eraman zuten.
- ✓ **ADOPZIOKO GURASOAK:** Josefina Anguera Barrutia eta Francisco Arostegi. 1986ko azaroaren 9an hil zen Josefina Anguera, eta 1970eko abenduaren 16an, Francisco Arostegi Aizpurua.



Bernardo Ezenarro kaleko edukiontziek apar-kalekuak kentzen dituzte: “Zabor edukiontzia Bernardo Ezenarro kalean jarri zituzten, Madala ingurua obretan zegoen bitartean. Aspaldi amaitu ziren obrak Madalan, eta badirudi edukiontzia betiko geldituko direla Bernardo Ezenarro kalean. Gainera, ez daude bi edo hiru edukiontzi: birziklatzeko edukiontzi guztiak jarri dituzte, eta lau autorenzako lekua hartzen dute. Upaiz Zaharra kalean ere badaude zabor edukiontzia, eta nire ustez, Bernardo Ezenarro kalekoak kendu egin behar dira. Besteak ez daude hain urruti, eta herri honetan aparkatzeko sekulako arazoa daukagu”.



Mintxetako kanpo aldeko korrika gunea ez dute garbitzen: “Mintxetako futbol zelaiaren kanpoaldeko korrika gunea urtean behin bakarrik garbitzen eta txukuntzen dute; Mugertza krosserako. Nire ustez, herri dagoen lekurik politenetakoa da. Jende asko jotzen da egunero korrika egitera edo paseatzera, eta mantenu lanak urte osoan egin behar direla iruditzen zait. Udaberri aldean, esaterako, sasi asko egoten da, eta orain, euritearen ondorioz dena lokaztuta dago”.



Tren geltokitik Plaza Handira dauden baldosak solte daude: “Tren geltokik Plaza Handirako bidean baldosak daude lurrean. Horietako asko solte daude, eta mugitu egiten dira. Ondorioz, euria egiten duenean, azpiko aldean ura piltzen da, eta baldosa zapaltzean ur guztia gorantz irteten da. Hankak blai eginda geratu zaizkit behin baino gehiagotan, eta eskertuko nuke konpontzea. Mila esker”.



Zuen kezak, gaiderak edo txaloak bidaltzeko:
barren@elgoibarzarra.com / 943-74 41 12


ESKERTZA

EUGENIA ZUBIAURRE ARRIETA



*Gure ondotik joan zara,
baina betiko izango zaitugu gure
bihotzetan.*

2009ko azaroaren 11n hil zen, 94 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.





BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.com.

Martxaren inguruko balorazioa

Akuilu taldean lanean hasi garenetik, gazteak baserrian instalatzea izan da helburu nagusia. Horretarako lan-ardatz batzuku jarri izan ditugu: lurra eskuratzea, erreleboak ahalbideratzea, auzolanak, baserriarren eta kaletarren arteko kooperatibak... Bestalde, gizarteari gure berri emateko (bertako nekazaritzaren garrantzi kulturala, ekonomikoa eta soziala, baserriarraren duintasuna, baserriaren aberastasuna, baserriko produktuen balioa eta kalitatea...), hainbat baliabide erabiltzen ari gara. Horrez gain, baserriarekin eta nekazaritzarekin zerikusia duten gazteen arteko sare sendoa eratzea ezinbestekoa da. Horregatik, lehenengo asmoa baserriarrei eta instalatu nahi duten gazteei Akuiluren berri ematea izan da. Hori dela eta, baserriar gazteen martxa.

Martxa antolatzeke herrialde guztietan egin genituen batzarrak, bilerak eta kontaktuak. Hedabideekin ere lana egin genuen eta martxaren inguruko oihartzuna zabaldu zen. Martxan egunero 15 lagun inguru ibili ginen. Elgoibar eta Mallabitik pasatzean jasotako berotasunagatik eskerrik asko, benetan, babes ederra jaso genuen-eta. Mahainguruetan ere, kaletarren zein baserriarren ilusioa, jakin-mina eta lan egiteko gogo nabaritu genituen. Pozgarria izan zen manifestazioko parte-hartze handia. Igan-dean, Durangoko azoka koloretsua, bazkaria eta giroa oso onak izan ziren martxari bukaera emateko.

Gure balorazioa, beraz, oso positiboa da, batez ere denon parte-hartzeagatik. Martxarekin lanean hasi besterik ez gara egin, baina abiapuntu oso ona da. Pizgarria

da jendearen ilusioa eta lanerako gogoia ikustea. Mila esker

Bitartean, eutsi goiari, Elgoibar.

Akuilu (baserria biziberritzeko gazteen arteko auzolana) ©

Gotzonekin zorretan

Lerro hauen bidez, Gotzon Garateren omenezko ekintzen antolatzaileak txalotu nahi ditut.

Bai herri-kantaldia, bai hitzaldiak, bai eta XX. mendeko bertso-antologia, guztiak izan dira atseginak eta aberasgarriak.

Ezin aipatu gabe utzi hizlarien maila bikaina, eta ondorengo solasaldietan sortu diren gogoeta interesgarriak. Angel Ugarteburuk Jon Sarasuaren saioaren ondoan egin zuena, esate baterako: herri txikiek inork baino eskubide gutxiago dugula kontsumista izateko. Dagoen lekutik, gurtura hartuko zituen Gotzonek. Nahiz honekin ez ditugun kitatuko harekin ditugun zorrrak.

Gotzon ez nuen hurbiletik ezagutu. Hurbiletik ezagutu zuen norbaiten aipua utziko dut, beraz. Txomin Peillen euskaltzain xiberotarrarena.

Iragan Sarako euskal liburu azokan, nongoa nintzen galdetu zidalarik "Elgoibarkoa" erantzun nion. "Gotzon Garateren herrikoa".

"Bai gizon jakintsua! Eta goxoa! Aingerua!", erantzun zuen hunkiturik.

Jon Barandiaran ©

Zer dela eta, Ascen???

Albiste beltzaren berri izan genuenean, lehenengo keinua malkoek egin zuten. Ge-

roxego, zuri errieta egiteko gogoia izan genuen, baina, hobeto pentsatuta, ez dizugu errietarik egingo, bestela Irene, Ibon eta Maken haserretu egingo dira-eta gurekin.

Jakizu, aurrerantzean, zu gure artean izan ez arren, guri emandako laguntza beti ibiliko dela gure inguruan, eta bi urte barru korrika Aitzolatik pasatzean, hantxe ikusiko zaitugula, sarri ikusi izan zaitugun bezala. Muxu bana.

AEK euskaltegia ©

Barren

BARREnek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarki lekuz aldatzeko eskubidea. BARREnek ez du bere gain hartzen NIRE TXANDA, ZOZOAK BELEARI eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako erantzukizunik.

Nafarroa plaza, 2 • 20870 ELGOIBAR

☎ 943 74 41 12

Faxa: ☎ 943 743 704

E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com

Publizitatea: ☎ 943 743 704

E-posta: barren.publi@elgoibarkoizarra.com

Argitaratzailea:



ZUZENDARIA Ainhoa Andonegi KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Oier Narbaiza, Ainara Argoitia HIZKUNTZA ARDURADUNA Oier Narbaiza PUBLIZITATEA Leire Rubio, Eneritz Lazkano MAKETATZAILA Zalao Armaiz MAKETAREN DISEINUA Jaione Unanue KOLABORATZAILAK Oihana Tarragual, Anjel Bazterretxea, Ane Odria, Maialen Olazabal, Andres Alberdi, Angel Ugarteburu, Abel Irizar, Alberto Agirreazaldegui, Justo Arriola, Arkaitz Irureta, Zuhaitz Gurrutxaga, Unai Arrieta, Noemi Otegi, Ainara Sedano, Eva Garcia, Miriam Garcia, Jesus Mari Makazaga, Juanito Gorostiza. IMPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.760 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855



Miriam Garcia

Kaixo, Eva, azken aldiz idazten dizut itsasbazter honetatik, Hego Ameriketako *bihotza* deitzen dioten puntu honetatik.

Denbora etenduaren eta aro

teknologiko honek ezartzen duen erritmoan korrika egiteko nahiaren arteko nahaste bitxi bihurtu da gizarte hau. Garbigailurik gabeko baina telefono mugikorrez beteriko errealitatea. Errepiderik gabe baina Internetekin, ur edangaririk gabe, baina DVDekin.

Orain Gabonak gerturazten ari direla eta, mundu erdiko telebistak jostailuen iragarkiak etengabe botatzen hasiko direla, iragana eta orainaldia elkarrekin bizi diren kaos honetatik zeozer berreskuratu nahi dut, gaur egun galtzeko arriskuan dagoen zeozer: jostailurik gabe oraindik jolasten dakitenen zoria.

“Jostailurik gabe jolasten dakitenen zoria berreskuratu nahi dut”

Egia da gure garaian ez zirela panpinarik falta izan. Baina eduki izan ez genituen panpina-etxetxo guztien artean bat bakarrik gogorazten dut: arratsaldero ogitartekoa jaten genuen bitartean amaren josteko mahaiaren azpian marraztuz eraikitzen genuena. Bic boligrafo bat eta irudimen apur bat besterik ez genuen behar.

Horregatik poztzen nau ikusteak oraindik lekuak daudela non errazten makilak zaldi arin edo egurrezko kutzak anaia txikia barruan sartzeko kamioi bihurtzen diren. Eskuekin bira egiten duten gupil baten atzetik korrika dabilta oinutsik umeak San Ignacioko kaleetatik; zikinak, nekatuta, zoriontsu.

Ez dakit aurtengo krisiak Olentzerorengan eragina izango duen. Baina ondo pentsatuta, ez litzateke guztiz gaizki egongo.



Eva Garcia

Laga gintuzula urtebete baino gehiago pasatu den honetan, denbora etenduaren gizaratean ikusten zaitut, Miriam, barru-barruan, batez ere inoiz baino beranduago idazten dituzuelako. Itxura ederra edukiko duzu oiloen artean zure hamakan idazten, lasaitasunez beteriko egunak bizi izaten. Pentsa ezazu laster *Zozoak* Hego Ameriketako bihotzaren habia utzi eta mendebaldeko erritmoa berriro hartzeko bere burua ondo prestatuta eduki beharko duela.

“Jolasak ez du zertan jostailuaren beharrik”

Baina ez nabil ahizpen arteko eztabaidan sartzeko asmotan. Utz ditzagun alde batera kontu hauek, eta egin dezagun zutabe hau elkarrekin. Azken finean, oraingo honetan bezala, haurtzarora bidera irteterakoan, denbora etenduaren gertakaria hemen ere lortu dugu, eta iraganeko zati bat atea jo barik, oraina bihurtu da.

Jolasak ez du zertan jostailuaren beharrik. Atxutxiamaikako urteak oroitzen ditut: bertan bereizi egiten genituen jolasa eta jostailua. Jostailu asko edukitzeak ez du esan nahi umeak jolasean gehiago egingo dutenik. Agian, aurkakoa pizten du, eta nahi duten guztia ez edukitzearen frustrazioari aurre egiteko, gaizki trebatuta dauden umeak sustengatzen ditugu. Baina zurrunbilo kontsumistaren atzamarretan umeekin erortzea ez da zaila.

Orain dela gutxi, *Bubbles* izeneko erakusketa ikustatu nuen, eta xaboi burbuilez beteriko poztasun erraz bat gorputzera etorri zitzaidan. Haurtzaroko oroitzapenez sortutako kaleidoskopio bitxi bat nire aurrean aurkeztu zen. Oroimena baino ez gara.



Elgoibarko Udala



ELISKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



Espainiako Vuelta eta Espainiako Futbol Seleksioaren partidak Araba, Gipuzkoa edo Bizkaian jokatzeko bi eskaera onartu dituzte Eusko Legebiltzarrean, PSOE, PP eta UPDren botoekin.

Zer iruditzen zaizu Espainiako seleksioak hemen jokatzeari?



Koro Aldaz
56 urte, etxeoandrea

Ez naiz futbol zalea, baina txirindularitza gustatzen zait, bai. Pirinotara joaten gara Tourra ikustera, eta bestela telebistaz jarraitzen dugu lasterketa. Dena den, guk gure seleksioa daukagu hemen, eta iruditzen zait horrek jokatu beharko lukela hemen.



Itxaso Etxabe
25 urte, irakaslea

Probokazio hutsa iruditzen zait, eta sutan jartzen naute halako kontuek. Espainiako seleksioak hemen jokatzeari? Eskatze hutsa probokazioa da. Kirola ez dela politizatu behar esanez aritzen dira behin eta berriz, eta gero eurak dira politizatzen ari direnak. Lotsagarria da!



Ricardo Torquemada
62 urte, txapista

Ondo iruditzen zait. Zergatik ez du ba hemen jokatu? Sarrerak banatuko balituzte ni neu ere joango nintzateke, beste talde batzuk ikustera joaten garen moduan. Aukeran nahiago nuke, hori bai, Donostian jokatzeari Bilbon baino, erosoagoa delako. Edo Eibarren bestela.



Antonio Prol
76 urte, jubilatua

Ondo iruditzen zait. Espainiako seleksioak Bilbon edo Donostian jokatzeari normala iruditzen zait. Sarrerak merke jarriko balituzte, eta aukera izanez gero, gustura joango nintzateke. Oso garesti jarri gero, ezingo nuke joan, jubilatua izanda ez zaidalako iristen.

ESKERTZA

PILAR ULACIA SORALUCE



2009ko azaroaren 7an hil zen.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



I. URTEURRENA

AURELIO ARENAS ARENAS



2008ko azaroaren 18an hil zen.
Haren oroimenez I. urteurrenako meza izango da, zapatuan,
azaroak 21, arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko Bartolome
deunaren parrokian. Joango zaretanoi eskerrak alde zuretik.



Erretratu zaharra



1965

Aste honetako erretratuak Karmelo Lasuenek lagatakoa da. 1965. urtean aterata dago, Plaza Txikian. Garai hartan futbol txapelketa egiten zen koadrilen artean, eta giro aparta izaten zen. Herriko koadrila gehienek hartzen zuten parte, eta bakoitzak bere izena zeukan. Talde honen Beti galdu zeukan izena. Gogora ditzagun argazkian azaltzen direnak:

Zutik, ezkerretik esku-mara: Palomino (entrenatzailea), Jose Urresti, Karmelo Lasuen (entrenatzailea) eta J. Javier Ulibarri,

Makurtuta: Jose segundo del Rey, Angel Silva, Jose Mari Aizpurua eta Luis Oria.

Gure berbak

Eskerrik asko!

Ascen maittia:

Gure artian ziñanien hautsak harrotzen zenduzen pasatzen ziñan lekuetan; gure artean jua zeran honetan ere hautsak harrotu ditzuzu; zela harrotu gairera Elgoibarko plazako hautsak: hain ziñan berezixa; hain ziñan estimatua; hain ziñan maittatua!

Gu bixok ezagutzen dogun lagun miñ batek, (ustez) txantxetan, esan izan digu lagun gitxi geratzen jakuzela, ondo zaintzeko geratzen jakuzen lagun apu-

rrak, ixa danak gaitzen ari giñalakuan. Ez da, ba, hori nik jua zan eguenian ikusi eta sentidu nabana: zenbat jende etorri zan zuri azken agurra ematera eta famelixakuak agurtzera! Itxuragabe!

Zuk ezagutzen dozun lagun horrek berak deitu zidan atzo, eta aittortu zidan "oindik lagun bat edo beste" geratzen jakuzela, ikusi zabana ikusitta.

Eskerrak eman nahi diuedaz, Ascen, zure baimenarekin azaldu ziran guztieri; eskerrak bihotzez erakutsi ziguen alkartasunagaittik eta maittasunagaittik.

Zuri ere eskerrak eman nahi dizudaz, Ascen: zoragarriak izan dira zurekin bizi izandako urte hōnek, bete-betiak, bizitzari zanik eta etekiñ haundixena ateriaz bizi izandakuak, zorion beteko urtiak; zoragarriak dira eman didazuzen umiak...

Beti izango zaittugu goguan eta bihotzian.

Horregatik, Ascen, adiorik ez. Muxu bat.

Maka

ESKERTZA

ASCEN NUÑEZ GAÑAN

2009ko azaroaren 11n hil zen.

Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



Pilar ikastetxeko proiektua Urasandi Berri gunera eramateko proposamena egin du ezker abertzaleak

Arau subsidiario berriak onartu arte, hainbat proiektu gelditzeko eskatu dute

Pilar Ikastetxeko gunea ez da zaharren egoitza egiteko leku aproposa, ezker abertzalearen arabera. Bere ustez, Urasandi Berri leku egokiagoa da horrelako eraikin batentzat: “Pilarren egingo duten eraikuntza erabat bertikala izango da. Sei edo zazpi solairu izango ditu, eta Foru Aldundiak zaharren egoitzetarako duen irizpidea ere ez du betetzen. Ospitaleek eta eskolek horizontalak izan behar dute, Foru Aldundiaren irizpideen arabera”. Horrez gain, sarrera-arazoak izango dituela adierazi dute, eta ez dela eroso izango zaharrentzako. Hori guztia kontuan izanik, ezker abertzalearen iritziz, eraikin horizontala egiteko aukera hobeak eskaintzen ditu Urasandi Berri: “Zergatik ez Urasandi berri erabili eraikuntza horizontalago bat egiteko, gune berde handi batekin, eta Pilareko orubea etxeak egiteko erabili?”, esan du ezker abertzaleak. Pilareko gurasoen elkarteak eta Gotzaitegiak, baina, zaharren egoitza egiteko baldintzarekin laga zuten ikastetxea.

Bestalde, arau subsidiario berriak onartu arte, herriko proiektu handiak gelditzeko eskatu dio Ezker Abertzaleak Udalari. Ezker Abertzalearen arabera, etorkizunean eragin handia izan dezaketen erabakiak arau berriak onartu ondoren hartu behar dira.



‘Egunkaria’-ren aldeko elkartasun erretratua aterako da Elgoibarren azaroaren 28an




Egunkaria-ren sumario nagusiko bost auzipetuen kontrako epaiketaren atarian, azaroaren 28an elgoibartarron elkartasun erretratua aterako dute Plaza Handian, 12:00etan. Antolatzaileek epaiketa horren kontra dauden herritarrei egin diete hitzordura azaltzeko deia. *Euskaldunon Egunkaria* itxi zutenean egin zen moduan, orain ere elgoibartarron elkartasuna eta babesa azaltzea da helburua. Erretratuaren aurretik eta ondoren, *Egunkariaren* aldeko bonoak eta kamisetak salduko dituzte. Salmentetatik ateratzen den dirua epaiketako gastuei aurre egiteko izango da.

Posta-buzoi berria jarri dute Altzolan

Egun batetik bestera Altzolako posta-buzoia kendu zutela konturatu ziren bizilagunak. Zubibai elkartekoak postetxera jo zuten, eta zahartuta zegoelako kendu zutela esan zieten. Denbora aurrera joan zen, eta hiru hilabeteren ondoren, buzoirik gabe jarraitzen zuten. Orduan, gutxi erabiltzen zelako kendu zutela esan zieten. Azkenik, Donostiako postetxeko kide bati esker, buzoia berria lortu dute. Zubibai elkartekoak auzotarren beharrei erantzuteko lanean jarraituko dutela esan dute.



Izena **Miguel Fernandez**



Miguel Fernandez, PSE-EEko zinegotziak, kargua lagako du urte amaieran. 35 urteren ondoren, Ciudad Realera itzuliko da, sorterrira. Lan egiten duen enpresa ez dabil ondo, eta bere herrian lanerako aukera irten zaio. Hala ere, pena handiz lagako du Elgoibar, bere hitzetan "bizitza erdia eta seme zaharrena lagako ditut hemen". 2007an hartu zuen Miguel Fernandezek zinegotzi kargua, eta PSE-EEko egoitza bere emazteak kudeatu du azarora arte. Ovidio Campello PSE-EEko buruak esandakoaren arabera, oraindik ez dute erabaki norik beteko duen Fernandezek lekua.

Zenbakia **22**

San Frantzisko kalean 22 farola berri jarri ditu Udalak. Bonbila berriek argi gehiago ematen dute, biziraupen luzeagoa dute eta, gainera, energia gutxiago gastatzen dute. Farola berri bakoitzak ematen duen argi kantitatea bikoitza da, eta argiaren kalitatea ere hobea da. Lanpara berriek daukaten beste ezaugarri bat kristalik gabeak direla da. Oro har, kaleko argiaren uniformetasuna hobetu du argiztapen berriak.

Irudia **Bost bildots jaio dira Mintxetan**

Mintxeta baserriko ardi batek bost bildots egin ditu. Aste honetan jaio dira, eta denak ondo daude, gainera. Harrigarria da, eta baserriarrak ere harriruta geratu dira: "Sekula ez dugu horrelakorik ikusi", esan dute. Normalean, arkume bakarria erditzen dute ardiek, eta batzuetan bi, baina bost batera jaiotzea ez da ohikoa. Amak kume bat ez du maite, baina besteak ederki zaintzen ditu, eta denak aurrera egingo dutela dirudi.



Emakumeenganako tratu txarren kontrako egunerako ekintzak antolatu dituzte

Azaroaren 25ean emakumeenganako indarkeriaren kontrako eguna dela-eta, Berdintasun Sailak hainbat ekintza antolatu ditu. Batetik, puntu lilaren kanpaina jarriko du martxan. BARRENein batera banatu dituzte gaur kartelak, eta helburua hilaren 25ean etxeetako, dendetako eta lantegietako leihoetan jartzea da, indarkeria gaitzesteko. Bestalde, emakumeek jasaten dituzten erasoei aurre egiteko argibideen gida banatuko dute. Horrez gain, autodefentsa ikastaroa hasiko da gaur, eta hilaren 26an zine foruma izango da Herriko Antzokian.

Emantzipazioari buruzko hitzaldia azaroaren 24an

Gazteek gurasoen etxetik irtetea dituzten aukerak aztertuko dituzte Gazte Informazio Guneak antolatu duen hitzaldian. Dirulaguntzei, hipotekei edota babes ofizialeko etxeei buruzko informazioa emango dute. Hitzaldia azaroaren 24an izango da, 19:00etan, Kultur Etxean.

Magosto eta Gaztañerre egunak asteburuan

Galiza kultur etxeak antolatuta, Magosto eguna ospatuko dute bihar. 11:00etatik aurrera, gaztainak eta Galiziako ardoak dastatzeko aukera izango da, Nafarroa Plazan. Domekan, bestalde, Zubibai elkarteak antolatuta, Gaztañerre jaia ospatuko dute Altzolan, Zelaia parkean, 12:30ean. Bertara gerturatzen direnek, gaztainak aintzinako erara dastatzeko aukera izango dute, danbolinarian erreta.

Gazte Zozketako zenbaki saritua atera dute

Joan zen zapatuan egin zen Sorluzen Debabarreneko Gazte Zozketa, eta 009 zenbakia izan da irabazlea (erreserbakoa 422). Irabazleak eskuz eginiko erlojua jasoko du.

Guatemalatik Elgoibarrera

Osasun arazoei aurre egiteko esperantzarekin

Ana Selmak 11 urte ditu, eta Guatemalako Quetzaltenango departamentukoa da. Euri denboraldia amaitu berri da, eta umeek oporrak dituzte. Elgoibarrera etorri da oporrak pasatzera, Naiara Malaberen etxera. Aurtengoarekin, hirugarren aldiz etorri da Ana Selma Euskal Herrira, Infancia Solidaria elkartearen laguntzaz. Ez da, ordea, opor bi-daia arrunta: Hiru anai-arreben artean nagusia da, Ana. Ama gaixorik dago, eta okerrera egiten duen gaixotasun sendaezina dauka. Baliteke seme-alabek gaixotasun bera edukitzea etorkizunean, eta osasun arazoak sendatzeko itzaropenarekin etorri da Ana.

Naiara Malabe eta Ana Selma.



Orain dela lau urte joan zen Naiara Malabe Guatemalara, Gobernu Kanpoko Erakunde batekin, kooperante. Ordura arte ez zen umeak etxera ekartzaren aldekoa. Bere ustez, goxoki bat eskuan ipini eta ondoren kentzea bezalako zen umeentzat. Baina Guatemalako egonaldian ikuspegia erabat aldatu zitzaion. Hango umeen beharrak bertatik bertara ezagutu zituen, eta, gainera, Ana ezagutu zuen. Hasieratik egin ziren lagun, eta ume izateko aukera eskaintzea erabaki zuen. Izan ere, Ana Selmak 11 urte ditu, baina etxeko ardura gehiena berak dauka. Hiru anai-arreben artean zaharrena da, aitarik ez daukate, eta ama gaixorik dago. “Guatemalan ez dauka ume izateko aukerarik”, esan du Naiarak. Bi hilabeteko oporrak pasatuko ditu Elgoibar eta Deba artean, eta Naiarari eta, bere lagunei esker, 11 urteko ume baten bizimodua egingo du.

Osasun arazoak

Anaren amak 30 urte ditu, eta gaixorik dago. Ez dakite oso ondo zer daukan, baina gaitz neurologikoren bat daukala esan diote. 22 urterekin hitz egitea ahaztu zitzaion, ezin du irakurri eta ibiltzeko ere arazoak ditu. Udan diru bilketa egin zuen Naiarak, eta 1.200 euro lortu zituen. Horrekin lau urterako logopeda, siko-logoa eta fisioterapeuta zerbitzuak ziurtatu dizkiote Anaren amari. Anak izugarri laguntzen dio amari, eta askotan bere agenda da. Amak ez dauka informazioa gogoratzeko ahalmenik, eta Anak gogoratzen dizkio gauza guztiak.

Gaitzak okerrera egiteko joera dauka, eta baliteke hereditarioa izatea. Aitonak ere badauka zerbait, baina hari hankan bakarrik eragin dio kaltea. Bi kasu horiek ikusita, Anari eta bi anaiei proba genetiko batzuk egitea



gomendatu diete, baina Guatemalan ez dituzte proba horiek egiten, Estatu Batuetan edo Europanbaizik. Naiara hemen egiteko ahaleginetan dabil. Ana iritsi baino bi egun lehenago, baina, oztopoak jarri dizkiote. “Osasun publikoan ebakuntzak egiten dituztela esan digute, baina diagnostikorik ez”. Osasun pribatuan saiatuko da Naiara, eta datorren urtean, Ana etortzen denerako, dena lotuta edukitzea espero du. Horretarako, 2010eko Aste Santutik aurrera errifak saltzen hasiko dira.

Bi hilabetez, 11 urteko ume baten bizimodua egingo du Ana Selmak

Ikasketak egiteko helburua

Infancia Solidaria elkartearen helburu nagusia umeek ikasten segitzea da. Europara etortzea ikasketekin jarraitzeko motibazioa da eurentzat. Anak medikua izan nahi du, “jendea sendatzeko”. Las Rosas eskualdekoak dira Euskal Herrira etortzen diren umeak, eta aurten horietako hiru gazte Unibertsitatera joan dira. Eskualde pobrea da, eta emaitza oso ona dela esan du Naiarak.

Bestalde, beste kultura bat ezagutzeko aukera ematen diete. “Guatemalako gizartea oso matxista da, eta Ana beldurtuta geratu zen nire aitona harrikoa egiten ikusi zuenean”, esan du Naiarak. “Aitona haserretu eta jo egingo gintuela uste zuen. Ez zuen ulertzen gizonek ere etxean laguntzen dutela.

Hirugarren aldiz etorri da aurten Euskal Herrira. Lehenengo aldiari Debara etorri zen, Naiara han bizi zen-eta orduan. Lagunak egin zituen, “lagun onak”, dio Naiarak. “Izugarri lagundu digute”. Elgoibarren ere baditu lagunak, baina Debara asko joaten dira. Inguruan laguntzeko jende asko daukela esan du Naiarak, “bestela oso zaila izango litzateke Ana ekartzea”.

Hondartza gustatzen zaio, baina beti hotz egiten duenean etortzen da. Iaz elurra ikusi zuen estreinakoz: “Hotza zegoen”, esan du Anak. Esnekiak izugarri gustatzen zaizkio, eta baita arraina ere. Guatemalan itsasotik gertu bizi dira, baina alturan, eta ez dute arrain askorik jaten.

Oso gustura dago hemen, baina, “familia, familia da beti”, dio Naiarak. Bi hilabete oso ondo pasatzen ditu hemen, baina pozik bueltatzen da etxera. Oso gutxirekin bizi dira han, eta oso bizimodu sinplea daukate. “Txankletekin iritsi zen Madrilgo aireportura”, esan du Naiarak. Hemengo lagunek ematen dizkiote jantziak eta opariak. Gabonetako egun batzuk hemen pasatuko ditu, eta Olentzero ikusteko ilusioa dauka Anak. “Debako lagunekin ikasten ditu Gabon abestiak”.

Aurten ume gutxiago

Krisia dela-eta, aurten ume gutxiago etorri dira: “Zazpi bakarrik”, esan du Naiarak. Lehen Anaren beste lagun bat ere etortzen zen Elgoibarrera, eta Soraluzera ere joaten ziren beste batzuk, baina aurten ez. Naiarak jendea animatu nahi du beka programa horretan parte hartzera. www.infanciasolidaria.com web gunean aurkitu daiteke informazio guztia. Hilero 20 euro bidaltzea da helburua. 10 euro ikastetxeari ematen dizkiote, eta beste 10 euroekin familiari jatekoa ematen diote. Erakunde serioa da, eta dirua umei laguntzeko erabiltzen dutela ziurtatu du Naiara Malabek.

QUETZALTENANGO



Gerra zibilaren ondorioekin bizi den gizartea

Guatemalako bigarren hiribururik garrantzitsuenak da Quetzaltenango, tamaina eta jarduerak ekonomikoa kontuan hartuta. Xela izenez ere ezagutzen da, eta itsas-mailetatik 2.500 bat metrora dago, gutxi gora behera.

36 urteko gerra zibila bizi izan dute, eta orain dela 13 urte amaitu zen. Naiarak kontatu du nola jokatzeko zuten soldaduek: “Hiru dardo botatzen zituzten Guatemalako maparen gainean. Gorria erortzen zen zonaldeko bizilagun guztiak hil egiten zituzten, horia erortzen zen tokian emakume guztiak bortxatzen zituzten, eta berdea libratu egiten zen, momentuz”. Bertako bizilagunek beldur handia daukatela esan du Naiarak, eta bere ustez, Anaren belaunaldiari dagokio gauzak aldatzen hastea.

Oso lurralde txirotua da, baina Gobernu Kanpoko erakunde asko bildu dira bertan, eta Naiararen esanetan, izugarri laguntzen diete hango bizilagunei. Naiararen ustez, orain dela 50 urte Euskal Herrian bizi ziren moduan bizi dira. “Nire amak kontaktatu dit bera txabola antzeko batean bizi zela, eta etxeko sarrera txiki-txikia zela”. Naiararen iritziz, aurrera egingo du Quetzaltenango gizarteak.

Danobateko euskara planak 10 urte bete ditu

Euskararen erabilera finkatzea eta langileak motibatzea da helburu nagusia



Danobateko euskara batzordea hilean behin biltzen da euskararen alorreko helburuen jarraipena egiteko.

Euskararen erabilera finkatzeko helburuarekin jarri zuten martxan Danobaten euskara plana 1999an. Denbora horretan egoerak hobera egin duen arren, Deñe Zabalo Danobateko euskara teknikariaren arabera, lan mundua oraindik erdalduna da. Bere esanetan, enpresa barruan pausu garrantzitsuak eman dituzte, baina kanpo-harremanak euskaraz egitea zaila dela azaldu du. Hala ere, urtero finkatzen dituzte euskararen alorrean bete beharreko helburuak, eta horiek betetzen ahalegintzen da Euskara Batzordea. Helburuak lortzeko arauak jarri behar dira, dakitenen artean euskara erabili behar da eta ez dakitenen artean euskararen ezagutza sustatu behar da. Jendearen parte-hartzea bultzatzeko, motibazioan eragitea garrantzitsua dela adierazi du Deñe Zabalok.

Hamar urteotan lan asko eta desberdinak egin ditu Danobateko euskararen alorrean. Iaz, Bikain ziurtagiriaren zilarrezko saria jaso zuen. Deñe Zabalo, euskara teknikariaren hitzetan, “urrezko kategoria lortzeko kanpo-harremanak ere euskaraz egin behar dira, eta Danobateko atzerrira asko saltzen du”. Hala ere, hobetu daitekeela uste du, eta horretan ari dira. Bestalde, euskara-gaztelania hiztegi tekniko eta tailerreko eskuliburua kaleratu dituzte, eta *Txirbil arte-tik* berripapera sortu dute. Danobaten irudia euskaratzeko ere lan handia egin dutela azaldu du euskara teknikariak, eta enpresa barruko errotulazioetan eta publikatzen diren idatzi guztietan euskara da nagusi. Kanpo ekintzetan zailagoa dela esan du Deñe Zabalok, baina egin dituzte saiakera batzuk. 50. urteurreneko kanpo ekintza gehienak euskaraz egin zituzten, eta Bilboko azokan makinaren ezaugarriak euskaraz ere jartzen dituen enpresa bakarrenetakoa da Danobat. Bazkideen batzar orokorrari dagokionean, pausu ga-

rantzitsua eman zuten orain dela bi urte, eta ordutik, batzarra euskaraz hutsean egiten da. Hala ere, berehalako itzulpen zerbitzua eskaintzen diete euskaraz ez dakitenei. Aplikazio informatikoak euskaraz ere sortzen dituzte, eta *Open Office* sistema euskaraz instalatu dute. Dena dela, nahi duenak gazteleraz jartzeko aukera badauka.

10. URTEURRENA

Euskara planaren 10. urteurreneko ekitaldien barruan, Enpresako Eskuliburua Teknikoa hobetuta eta eguneratuta berregitaratu dute. Horrez gain, azaroaren 27rako hainbat ekitaldi prestatu dituzte. Plaza Handian herri kirolak egiteko asmoa daukate (euria bada, Ikastolako frontoian), ondoren, trikitilarekin poteoa egingo dute. Gauean afaria Sigma jatetxean, Ander Lipus eta Andoni Egañarekin. Azkenik, abenduaren 3an Euskararen Nazioarteko Eguna dela-eta, Julio Ibarrek hitzaldia eskainiko du Danobaten. Bideo bat ere prestatu dute, urte hauetan euskararen bueltan ibili diren pertsonekin, eta bakoitzak bere esperientziak kontatu ditu. Deñe Zabaloren ustez, euskararen bueltan jendea biltzea da garrantzitsua. Euskara teknikariaren ustez, egoerak hobera egin du enpresa barruan, baina kanpora begira oraindik asko dago egiteko.



Datorren 26an, ostegunez



Beste estilo bat dator Gipuzkoara

Moda

Moda bizitzeko beste estilo bat. Azken joerak, bertoko eta nazioarteko firma handiak, markarik esklusiboenak eta gaur-gaurko osagarriak: oinetakoak, bitxiak, lurrinak, kosmetika...

Etxea

Beste estilo bat, etxea hornitzeko azkenekoenekin: oherako eta mahairako arropa, alfondrak, errezelak... eta etxeko tresneria elektriko guztia.

Astialdia

Astiaidiaz gozatzeko beste estilo bat. Kiroletarako guztia, informatika, telefonia, irudi eta soinurako azken produktuak... eta espazio bereziak liburuetan, musikan, zinematan...

Supermerkatua

Beste estilo bat eguneroko erosketak egiteko. Ugaritasun guztiarekin eta pentsa dezakezun kalitatekin onenarekin. Produktu freskoak, xarkuteria, ardoak, freskagarriak... El Corte Inglés markako produktuen garantia eta aparteko prezioekin.



Eibar Ego gain, 7

El Corte Inglés



ETENGABEKO ORDUTEGIA: 10:00 - 22:00. EROSTEKO KARTA. EPEKAKO FINANTZAKETA. ETXERA BIDALTZEA. BIDAI AGENTZIA. KAFETEGIA...
ETA EL CORTE INGLÉS-EN GARANTIA. POZIK GERATU EZIK, DIRUA ATZERA ITZULIKO DA.
GUREKIN HITZ EGITEKO: 901 122 122

www.elcorteingles.es

INTERNETEKO DENDA HANDIA

Datorren urteko egutegia egiteko argazki lehiaketako irabazleak aukeratu dituzte

Guztira 50 lagunek hartu dute parte, eta 137 argazki aurkeztu dituzte

Udaleko Euskara Sailak, Ongarri argazki taldearekin batera, 2010eko egutegia egiteko argazki lehiaketa antolatu du bigarren urtez, eta dagoeneko aukeratu dituzte irabazleak. Antolatzaileek esandakoaren arabera, aurten goi lehiaketak iazkoa gainditu du; bai kantitateari, eta baita kalitateari dagokionean. Guztira 50 herritarrek hartu dute parte, eta gehienek hiruna argazki aurkeztu dituzte. 137 argazkiren artean aukeratu behar izan dituzte irabazleak. Epaimahaia Udaleko bi ordezkari osatu dute: Euskara Batzorde-buruak eta Kultura Batzorde-buruak.

Hamabi argazki aukeratu dituzte, hilabete bakoitzerako bana. Ondorengoak dira irabazleak:

- ◆ Carlos Esteban Egurrola (2 argazki)
- ◆ Alberto Fernandez Picon
- ◆ Andoni Rementeria Totorika (2 argazki)
- ◆ Iñaki Beristain Alvarez
- ◆ Angel Vicario Burgos
- ◆ Aitor Zabala Iriondo
- ◆ Aitor Rementeria Totorika
- ◆ Eulogio Mancebo Irazo
- ◆ Asier Izagirre Egaña
- ◆ Manu Sanchez



Ekaineko irudia.



Uztailako irudia.

Gure Bide elkartekoek Errioxako hainbat bodega bisitatu zituzten zapatuan



Gure Bide elkarteko lagunek Errioxako hainbat bodega bisitatu zituzten joan zen zapatuan, hilaren 14an. Elkartearen 50. urteurrenako ospakizunen barruan egin zuten irteera, eta guztira 40 lagun inguru bildu ziren. Goizean, Ondarre bodega bisitatu eta bertako ardoa dastatzeko aukera izan zuten. Ondoren, Olarra bodegan izan ziren, eta eguerdian Biasteriko Ayala bodegan egin zuten bazkaria. Argazkian Gure Bideko kideak ikus daitezke, 50. urteurrenako zapia lepoan dutela. Bodegetako arduradunei ere eman zizkieten zapiak. Iluntzean bueltatu ziren Elgoibarrera, eta egun oso polita igaro zutela azaldu dute.

'Desnudos en Central Park' antzerkia gaur gauean

Txalo Produksioak taldeak *Desnudos en Central Park* antzeziana taularatuko du gaur, Herriko Antzokian. Antzerki munduko aurpegi ezagunak dira protagonistak. Manuel Galiana, Emma Ozores, Walter Gamberini eta Maribel Salas izango dira elgoibartarren irribarrea lortzeko arduradunak. Gerryk idazlea izan nahi du, eta bere bizitzaren erdia pasatu ondoren, norbait garrantzitsua izan daitekeela uste du. Emakume inozo batekin ezkontuta dago, eta bi seme-alaba ditu. Jauzi garrantzitsua ematen auzartuko da. Bi saio eskainiko dituzte, bata 20:00etan eta bestea 22:15ean.



On Benitoren kontzertuak hasiko du gaur gauean Sotoko Hotsak musika jaialdia

Herriko musikariek Santa Zeziliaren omenezko ekitaldiak antolatu dituzte astebururako

Sotoko Hotsak jaialdia gaur hasiko da, On Benitoren kontzertuarekin. Benito Irazokik (gitarra eta ahotsa), Benito Lertxundik (bateria) eta Benito Garziak (harmonika) osatzen dute taldea, eta rocka, bluesa eta musika esperimentalak jotzen dute. Hainbat egitasmotan aritu izan dira aurrez, tartean, Petti, Do, Borrokan, Ataka eta Mugaldekoak proiektuetan, eta 50eko hamarkadako rockal egiten dute bereziki. Kultur Etxeko sotoan izango da kontzertua, 22:30etik aurrera, eta bai emaldi honetarako bai datorren asteko beste bi kontzertuetarako sarrerak hiru eurotan daude salgai.

Datorren astean beste bi kontzertu izango dira. Eguenean, Mursegok joko du, 22:00etatik aurrera. Bakarkako lana da Maite Arroitauregi eibartarraren proiektu musikala. Anarirekin edo Kokein taldearekin

ibilitakoa da, eta proiektu berri honetan txeloa, ukelelea, perkusioa eta ahotsa batzen ditu.

Gaur, zortzi, berriz, Iban Urizar elgoibartarrak martxan jarritako Andrankan proiektua entzuteko aukera izango da. Pop eta folk kutsuko kantuak joko dituzte, eta zuzenerako aparteko musikariak bildu ditu: Patxi Zabaleta (Arima Beltza eta Sinuose), Jon Gurrutxaga (Arima Beltza), Andoni Mugika, eta Cebri (Lili Moon). Andrankanen kontzertua 22:30ean hasiko da.

Santa Zeziliako ekitaldiak

Santa Zezilia dela-eta, kontzertuak antolatu ditu Musika Eskolak gaurko eta biharko. Gaur, 19:30ean, taldekako emaldiak izango dira, eta ondoren, bigarren nibeiko diplomak banatuko dituzte. Bihar ikasle, ikasle ohi eta irakasleen kontzertu berezia egongo da,



12:30ean, Herriko Antzokian. Parrokian, bestalde, meza berezia izango da bihar, eta koroak kontzertua eskainiko du. Domekan, Udal Musika bandak kalejira eta kontzertua emango ditu.

Finalurrekoen bigarren itzulirako sailkatu da Uxue Alberdi Bertsolari Txapelketa Nagusia



Bide onetik jarraitzen du Uxue Alberdik Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusia. Joan zen zapatuan finalurrekoetarako kanporaketa jokatu zuen, Tolosan, eta bigarren egin zuen, Sustrai Colinaren atzetik. 637,5 puntu lortu zituen Uxuek, eta Tolosan egindako lan bikain horri esker, bigarren itzulirako sailkatu da. Donostian jokatuko du hurrengo kanporaketa, Belodromoan, azaroaren 29an. Ez du lan erraza izango elgoibartarrak. Maialen Lujanbio, Jon Maia, Aitor Sarriegi, Arkaitz Estiballes eta Iñaki Gurrutxaga izango ditu orduan aurrez aurre.

Bertsolari Txapelketa Nagusiko final handia, berriz, BECen jokatuko da, abenduaren 13an.

Garagardo festa izango da bihar gaztetxean

Garagardo festa antolatu du biharko Gazte Asanbladak. Garagardo aukera zabala egongo da, eta saltxitxak ere izango dira garagardoari laguntzeko. 22:30etik aurrera kontzertuak hasiko dira. Durangoko Trastorno taldeak hasiko du gaua, eta Arrasateko Krisis taldeak joko du gero. Gaztetxean 20:00etan zabalduko dute, eta berandura arte luzatuko da gaua.

Bolonia prozesuari buruzko hitzaldia azaroaren 26an

Elgoibar-Arreiture Institutuak Boloniar buruzko hitzaldia antolatu du, prozesuak gurasoengan sortu dituen kezkak eta zalantzak argitzeko asmoz. Ignacio Borinaga Eibarko EHUKo irakaslea eta ikastetxe orientazio mintegiko kideak izango dira. Hitzaldia azaroaren 26an izango da, 19:00etan, eta interesa duen edonor joan daiteke.

Oier Ibarbiak eta Nerea Amilibiak irabazi dute Karakateko igoerarik jendetsuena

Lehenengo elgoibartarra Haritz Arrieta izan da

Morkaikok antolatuta, Karakateko igoerarik jendetsuena jokatu zen zapatuan. 58 lagunek hartu zuten parte, eta bizkorrena Oier Ibarbia izan zen. Zizurkildarrak 30 minutu eta 47 segundo behar izan zituen Karakatera igotzeko, bere estreinako parte hartzean. Nerea Amilibia aiarrarentzat ere parte hartzen zuen lehenengo aldia zen, eta garaipena lortzeaz gain, emakumeen errekor berria ezarri zuen: 35:48. Haritz Arrieta izan zen lehenengo elgoibartarra, eta aurpegi onenaren saria Imanol Larrañaga Txinok eta Javier Fernandezek Txastik jaso zuten. Argazki gehiago eta bideoak ikusteko: www.elgoibarren.net



Patxi (78 urte) eta Jose Mari Alberdi aita-semeak.



Haritz Arrieta, lehen elgoibartarra.



Mikel Gabilondo, ikusleak agurtzen. Inoiz baino ikusle gehiago batu zen Karakateko tontorrean.



Parte-hartzaileak Plaza Handiko irteeran.



Iñigo Lariz, 2007ko irabazlea.



Pako Iriondok eman zizkien txapelak eta Mausitxako gaztak irabazleei.

SAILKAPENA

1. Oier Ibarbia	30:47
2. Joseba Altuna	31:02
3. Joseba Plaza	31:04
4. Haritz Arrieta	31:07
5. Mikel Albeniz	31:10
6. Iñigo Ortuoste	31:29
7. Iñigo Lazkano	31:47
8. Iñigo Lariz	31:56
9. Oscar Oncala	31:58
10. Aritz Kortabarria	32:00
11. J.M. Fernandez Suso	33:00
12. Zigor Alberdi	33:09
13. Igor Uriolabarrenetxea	33:29
14. Jokin Urresti	33:56
15. Gotzon Zulaika	33:58
16. Igor Rey	34:15
17. Aitor Galdos	34:54
18. Iñaki Arakistain	35:25
19. Ibon Serrano	35:32
20. Nerea Amilibia	35:48
21. Ignacio Diaz	35:56
22. Mikel Hernandez	36:23
23. Aitor Osoro	36:35
24. Iker Etxeberria	36:40
25. Imanol Larrañaga Txino	36:49
26. Jokin Martinez	37:00
27. Ruben Lopez	37:25
28. Asier Irazabal	37:32
29. Ander Garmendia	37:39
30. Martin Dominguez	37:47
31. Edu Uribe	37:51
32. Anton Mendizabal	37:56
33. Sabin Zenarruzabeitia	38:02
34. Zigor Esnaola	38:09
35. Ibon Caballero	38:25
36. Javier Fernandez Txasti	38:38
37. Jose Ruiz	38:41
38. Erlantz Zaldubide	38:42
39. Asier Arrieta	38:54
40. Jose Antonio Agote	39:00
41. Jon Agirrebena	39:02
42. Jorge Elkoroiribe	39:11
43. Yony Iregui	39:15
44. Iban Uribe-Etxeberria	39:35
45. Xabier Plaza	39:46
46. Ibon Villanueva	40:38
47. Roberto Garcia Txeto	41:44
48. Iker Torrientes	43:00
49. Mikel Gabilondo	43:43
50. Iñaki Laskurain	44:06
51. Javier Oñederra	45:29
52. Luis Ariznabarreta	45:34
53. Jose Mari Alberdi	45:48
54. Patxi Alberdi	45:48
55. Gonzalo Saez	48:32
56. Unai Peña	48:38
57. Mikel Elizburu	48:44
58. Unai Martinez	52:38

Alkortara igoera jokatuko da bihar Mendaron

Goizeko 10:30ean irtengo dira lasterkariak plazatik




Lasterkariak hitzordu berezia dute bihar Mendaron. Izan ere, Alkortako igoera jokatuko da, 4,7 kilometro inguruko proba. 10:30ean irtengo dira antxitxikiariak Herriko Enparantzatik, eta Alkortara arteko aldapa pikoetan neurtuko dituzte indarrak. Lasterkari asko Karakateko igoera jokatuzetik etorriko dira ziurrenik, eta, tartean, Alkortari neurria hartutakoak ere izango dira. Hortaz, ikusmina handia izango da. Antxitxikiariak Joseba Plaza markinarren marka (20:43:00) ontzen saiatuko dira. Plazak berak irabazi zuen iaz.

Izen-emateak plazan egingo dira, bi eurotan, lasterketa hasi baino ordu erdi aurretik. Hiru sari banatuko dira. Irabazlearentzat txapela eta garaikurra izango dira, eta ondorengo bientzat garaikur bana. Ondoren, lasterketa ostean, salda eta txorizoa banatuko dituzte, Alkortan. Ezker abertzaleak antolatzen du proba hau, euskal presoen eskubideen aldeko aldarrikapen gisa.

Udaleko kirol instalazioen mantenuaz arduratuko den enpresa aukeratu dute

Elgoibarko Udal Kirol Patronatuaren Zuzendaritza Batzordeak lheki enpresari esleitu dio, behin-behingo eta 59.508 euroren truke (BEZ barne), Udalaren kirol instalazioak mantentzeko zerbitzua. Bestalde, Udal Kirol Patronatuak Gurbisa enpresari esleitu dio Udal Kirol Patronatuaren harrera zerbitzua.



Mauro Gonzalez, seigarren Euskadiko Ehiza Txapelketan



Mauro Gonzalez mendaroarrak seigarren egin zuen domekan Euskadiko Ehiza Xeha Txapelketan, puntutan bosgarrenarekin berdinduta. Hiruna eper ehizatu zituzten. Iñigo Gisasola bailarako txapeldunaren aurretik sailkatu zen, eta baita Gipuzkoako txapeldunaren aurretik ere. "Ehiza lekura iristeko, bi kilometro egin genituen aldapan gora, eta korrika ondoen aritzen direnek irabazi zuten. Zortea izan nuen begiratu gabe laga zutelako leku bat, eta ordu laurdenean hiru eper topatu zizkidalako txakurrak", azaldu du Maurok.

EMAITZAK

FUTBOLA

Amurrio 0 – Haundi 1 (3. maila)
Elgoibar 1 – Aretxabaleta 2 (Erreg.)
Elgoibar 2 – Lagun Onak 1 (Jub.)
Arrasate 0 – Elgoibar 4 (Kad. A.)
Elgoibar 1 – Soraluze 0 (Kad. B.)
Arrasate 5 – Elgoibar 1 (Inf.)
Antiguoko 6 – Elgoibar 1 (Txiki)

ESKUBALOAIA

Tecnifuelle Elg. 22 – Basauri 12 (Sen. nesk.)
IMH Elg. 35 – Kukullaga 25 (Kad. nesk.)
Irungo 28 – Alkorta Forging Elg. 35 (Sen. mut.)
Pneumax Elg. 28 – Urola 20 (Cad. mut.)
Aterpe Elg. 43 – Aloña Mendi C 3 (Inf. nesk.)
Ikus Elg. 24 – Pulpo B 12 (Inf. nesk.)
Astigarraga Elg. 6 – Aloña Mendi A 14 (Inf. nesk.)
Bankoa Elg. 28 – Txarriduna Elg. 11 (Inf. mut.)

PILOTA

Gipuzkoako txapelketa

Lagunak 22 – Zazpi iturri 15 (1. mailako nag.)
Lagunak 22 – Oiarpe 11 (2. mailako nag.)

Pala

Lagunak 25 – Mundarro 20

ARETO FUTBOLA

Concepto Createch 7 – Astraburuko 3 (Nazional B)

SASKIBALOAIA

Andraitz 14 – Anbolo 45

AGENDA

FUTBOLA (Mintxetan)

Zapateria, 21
12:45 Elgoibar – Bergara (Kad. A)
16:30 Haundi – Salvatierra (3. maila)
Domeka, 22
12:00 Elgoibar – Eibar (Txiki)

ESKUBALOAIA (Kiroldegian)

Zapateria, 21
19:00 Grupo Eibar Elg. – Ermua (Jub. nesk.)
17:30 IMH Elg. – Ermua (Kad. nesk.)
16:00 Alkorta Elg. – Bergara (Sen. mut.)
10:45 Aterpe Elg. – Arrate (Inf. nesk.)
9:30 Txarriduna Elg. – Udarregi (Inf. mut.)
Domeka, 22
9:30 Beristain Elg. – Irungo Gazteak (Jub. mut.)

ESKU PILOTA (kastolan)

Barxakua, 20
22:00 Lagunak – Antiguoko (2. mailako nag.)

SASKIBALOAIA (Kiroldegian)

Zapateria, 21
13:00 Anbolo – Iparproiekt

LANA

ESKAERA

- Emakumeak lana egin nahi du, zaharrak zaintzen, etxeko lanetan edo garbiketarako egiten. ☎ **685 761 979**
- Gizona lanerako prest, igeltsero, elektrizista, pintore edo beste edozer lanerarako prest. ☎ **606 612 834**
- Neska etxeko lanak eta garbiketarako egiteko prest. ☎ **654 837 227**
- Emakumea edozein lan egiteko prest. ☎ **636 517 025**
- Emakumea nagusiak zaintzeko prest edo gaixoak zaintzeko. Esperientziaduna. ☎ **626 329 979**
- Neska gaztea ile-apaintzaile lanerarako prest. Tituladuna eta esperientziaduna. ☎ **650 280 670**
- Emakumea edozein lan egiteko prest. Externa edo orduka. ☎ **646 235 195**
- Emakumea interna edo orduka lan egiteko prest. ☎ **662 247 584**
- Irakaslea behar da Elgoibarko akademia baterako, hizkuntzetan eta eskola lanetan laguntzeko. *kk*
- Emakumea interna edo externa lan egiteko prest. ☎ **697 702 158**
- Emakumea garbiketara lanak eta pertsona nagusiak eta haurrak zaintzeko prest. ☎ **686 420 642**

- Emakumea pertsona nagusiak zaintzeko prest. Arratsaldez. ☎ **943 743 251**
- Emakumea pertsona nagusiak zaintzeko prest. Arratsaldez. ☎ **943 743 251**
- Pertsona euskalduna garbiketarako egiteko prest. ☎ **687 114 707**
- Neska gaztea haurrak zaintzeko prest. Esperientziaduna. ☎ **680 516 240**
- Emakumea nagusiak zaintzeko prest. Esperientziarekin. ☎ **618 377 283**
- Emakume euskalduna pertsona nagusiak zaintzeko prest eta etxeko lanak egiteko prest. Esperientziaduna. Goizez. ☎ **660 511 781**
- Emakumea, edozein lan egiteko prest. Edozein orduetan. ☎ **626 018 538**
- Emakumea, interna edo externa lan egiteko prest. Erizaina. ☎ **649 008 036**

ETXEBIZITZAK ETA LOKALAK

ALOKAIRUA

- San Frantzisko etxe polit bat alokatzen da, erosteko aukerarekin. Sukaldea, sala eta logela bat. Ganbara. Atzariak berriak ditu.. Arratsaldean deitu. ☎ **660 042 159**
- Elgoibarko erdigunean etxea konpartitzeko logela alokatzen dut. ☎ **678 803 535**

MOTORRAK ETA GARAJEAK

- Garai bateko Geminis eraikuntzan garajea alokatzen da. ☎ **639 716 137**
- Garajeak saltzen dira Pedro Muguruza etorbideko 25. zenbakian. ☎ **625 708 042**
- Garaje itxia salgai Plaza Txiki inguruan. ☎ **628 521 579**

BESTELAKOAK


- Harrerako altzaria salgai, ispluarekin. ☎ **605 736 346**



• Zorionak, **Asier**, datorren asteartean 8 urte egingo dituzulako. Muxu erraldoi bat familiakoen partez.



• Zorionak, **Izaro**, astelehenen 5 urte egingo dituzulako. Muxu handi bat familiakoen partez.




• Zorionak, **txapeldun!** Azkenean bihar 4 urte! Muxu handi bat etxekoan partez.



• Zorionak, aitxitxa **Mauro**, igandean zure urtebetetzea izango delako. Muxu handi bat etxekoan, eta bereziki, Paulen partez.



• **Jon Tain Piñeiro**, Xacobeoa urtero ospatzeko beste arrazoi bat. Zorionak, Kontxi eta Jose!



• Zorionak, **printzesa**, ostiralean urte bat egingo dituzulako. Muxu handi bat familiakoen partez.



• Zorionak, **txapeldun**, zure 3. urtebetetzean. Etxekoan, eta bereziki, Markelen partetik. Ondo pasal!



• Zorionak, **Jone**, 6 urte egin dituzulako. Familiakoan partez.



• Datorren asteartean 2 urte! Zorionak, **Nala!** Muxu potolo bat denon partez, eta bereziki, Intza, Malen eta Haizearen partez.



• Zorionak, **Josu**, 8 urte egingo dituzulako azaroaren 23an. Familiakoan partez, muxu handi bat.



• Zorionak, **guapo!** Dagoeneko 24! *Que pasada!* Muxu bat familiakoan partez!



• Zorionak zure bigarren urtebetetzean, **Beñat!** Segi orain arte bezain jator!



• Zorionak **Alain eta Aitzol**, hilaren 23an eta 25ean 4 eta 9 urte egingo dituzuelako. Muxu handi eta potolo bat etxeko guztien partez.



• **Mirenek eta Maitek**, urtetxo bat eta bihurrikeria asko egin dituzte. Eskerrak 12 urte bete berri dituen **Irati** zaintzaile paregabea dela. Zorionak hiruroi Mikel eta Noraren partez.

OSPAKIZUNAK



Azkue-San Roke auzoko lokal sozialean merezitako omenaldia egin diete honako hauei: Jose Iriondo, Mari Tere Leiaristi, Kontxi Ariznabarrera eta Maria Luisa Lejardi. Zorionak, denon partez.

Erretratu bakarreko agurra: 2 euro. Argazki bikoitza: 3 euro. Hirukoitza: 5 euro. Handia: 6 euro. Norbait zoriondu nahi baduzu, argazkia **eguzten eguerdia** baino lehen ekarri behar duzu. **BARRE**neko bulegora 12:00ak baino lehen, edo barren@elgoibarkoizarra.com e-postara bidali.

OKINDEGIA

22 domeka **FOTERO**

FARMAZIAK

24 ORDUZ

20 Yudego
21 Zabaleta
Goizez, Etxeberria (Sant.Ana)

22 Zabaleta
23 Etxeberria (Errosario)
24 Ibañez
25 Garitaonandia
26 Etxeberria (Santa Ana)
27 Fernandez

Ibañez

Rekalde, 1 (SORALUZE)
Tel: 943 751 638

Fernandez

Herriko enparantza 4,
Garagarza (MENDARO)
Tel: 943 756 142

Zabaleta

Kalebarren, 9 (SORALUZE)
Tel: 943 751 384

INFORMAZIO GEHIAGO:

Egin klik



www.elgoiBARREN.net
atarian



20 barixakua

Erakusketa

19:00 Olio-pinturak
Gemma Monreal margolariak amaren oroimenez egindako olio-pinturen erakusketa inauguratuko du. Kultur Etxean egongo da ikusgai abenduaren 13ra arte.

Erakusketa

19:00 Argazki erakusketa
Jairo Berbel argazkilari gazteak Afrikara egindako bidaiaren ateratako argazki erakusketa inauguratuko du. Kultur Etxean egongo da ikusgai, abenduaren 13ra arte.

Kalejira

18:00 Trikitilarien kalejira
Inazio Bereziartua musika eskolako trikitilariak kalejira egingo dute.

19:30 Kontzertua

Musika eskolako ikasleek Santa Zeziliaren omenez kontzertua eskainiko dute. Bertan, diplomak banatuko dituzte.

Antzerkia

20:00 eta 22:15 'Desnudos en Central Park'
Txalo produkzioak taldeak taularatuko du, Herriko Antzokian. Bi saio eskainiko dituzte.

Kontzertua

22:30 Sotoko Hotsak
Sinuosek antolatuta, On Benitoren kontzertua. Kultur Etxeko sotoan.

Kontzertua

23:30 Lain taldearen kontzertua
Euskadi Gazteko maketa lehiaketa irabazi duen Lain taldearen kontzertua, Mendaroko gaztetxean.

21 zapatua

Ospakizuna

11:00 Magosto eguna
Galiza kultur etxeak gaztainak eta ardoa banatuko ditu, Nafarroa Plazan.

Kontzertua

12:30 Musika Eskolaren 25. urteurreneko kontzertua
Inazio Bereziartua musika eskolako ikasleek, ikasle ohiek eta irakasleek kontzertu berezia eskainiko dute. Herriko Antzokian.

Meza berezia

19:30 Meza eta kontzertua
Santa Zeziliaren omenez, meza berezia izango da San Bartolome parrokan. Koroak abestuko du, eta ondoren kontzertua eskainiko du.
- *Goizian argi hastian*, Etxehun-Lesbordes
- *Maitia nun zira*, J. Uruñuela
- *Illunabarra*, Mokoroa
- *Ave verum corpus*, W.A. Mozart
- *Aita gurea*, Madina

Jaiak

20:00 Garagardo festa
Gazte Asanbladak antolatuta, garagardo festa egingo dute Gaztetxean.

22 domeka

Kontzertua

12:30 Udal Musika banda
Musika Bandak kontzertua eskainiko du Herriko Antzokian. Goizeko 10:15ean kalejira egingo dute.
1. *Por Navarra* (Pasodoblea), F. Bonete.
2. *La Paloma* (Habanera), S. Iradier.
3. *The Operistique concert*, G. Ropuve.
4. *Charleston Forever* (Charleston), M. Peeters.

Gaztañerre

12:30 Gaztañerre jaiak
Altzolako Zubibai elkarteak antolatuta, Gaztañerre jaiak ospatuko dute. Zelaia parkean.

24 martitzena

Hitzaldia

19:00 'Emantzipazioa'
Gazte Informazio Guneak antolatuta, gurasoen etxetik alde egiteko dauden aukerei buruzko hitzaldia eskainiko dute Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

«El secreto de sus ojos»

21, zapatua: 19:00/22:15
12, domeka: 19:00
23, astelehena: 21:30

«G-Force»

22, domeka: 16:30

«La teta asustada» (Ongarri zine-kluba)

26, eguena: 21:30



25 eguaztena 27 barixakua

Antzerkia

17:00 'Elefante bitxia'

Kutxaren Gizarte Ekintzak antolatuta, Udal Liburutegian. Umeentzako.

Bideo foruma

22:00 'Las chicas de la lencería'

Haizeak antolatuta, *Las chicas de la lencería* filma eskainiko dute Kultur Etxean.



Gure gomendioa

Argazki eta pintura erakusketa

Gaur, hilak 20, Kultur Etxean

Gemma Monreal eta Jairo Berbel ama-emeek erakusketa inauguratuko dute gaur arratsaldean: Gemmak amaren omenez eginko margolanak jarriko ditu ikusgai, eta Jairok Afrikan ateratako erretratuak. Abenduaren 13ra arte egongo da ikusgai, Kultur Etxean.



Zerikasi

IKASTAROAK

Autodefentsa ikastaroa

Norentzat: Emakumeentzat
Hizkuntza: Ikasleen arabera
Hasiera data: 2009-11-20
Non: Elgoibarren
Izenemate bukaera: Kontsultatu

Kaligrafia arabiarra

Norentzat: Interesatuentzat
Hizkuntza: Gazteleraz
Hasiera data: 2009-11-20
Non: Eibarren
Izenemate bukaera: Kontsultatu

YouTube erabiltzeko ikastaroa

Norentzat: Interesatuentzat
Hizkuntza: Gazteleraz
Hasiera data: 2009-11-23
Non: Deban
Izena emateko: 943 191 927

Informazio eta eskaintza zabalagoa:
www.zerikasi.com edo 943 74 82 71

VI. URTEURRENA

LOREA ETXABE AZKUE



*Edur zuritxan hazitxako
lore gorrixa ziñan.
Urtu eraitxen zendun
inguruko hotza,
eta bedarra hazi erain.*

*Ez dogu gehixao
zure berua igarriko,
baña hementxe gerauko da
zure arnasiaz aztarnia,
botatako sustraixen gañian.*

Zure familia eta lagunak



2003ko azaroaren 26an hil zen, 30 urte zituela. VI. urteurreneko meza eguenean, azaroaren 26an, izango da arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko San Bartolome parrokiaren. Joango zaretenoi eskerrak alde z aurretik.

txatxaran



Pilar ikastetxe laugarren mailako ikasleak.

pilar ikastetxe ikasleak

Ingurumena zaindu beharraz aspaldi jabetu ziren Pilar ikastetxe ikasleak. Elgoibarko Lehen eta Bigarren Hezkuntzako gainerako ikastetxeen moduan, Jaurlaritzaren Agenda 21 programan parte hartzen dute. Era berean, aurten, birziklatzea sustatzeko lehiaketa batean ere izena eman dute, eta herriko saltoki eta enpresetan pilatutako toner eta kartutxo hutsak biltzen ari dira. Estatu osoko lehiaketa bat da, eta 200 ikastetxetik gora parte hartzen dute.

Ingurumena baresteko lehia

badaezpada”. Aurten diru horrekin zer egin ez dute pentsatu oraindik, baina aurreko urteetan moduan, bildutakoaren zati bat Elgoibarko Miski gobernuz kanpoko erakundearentzat izango da, eta beste zatia txangoak egiteko erabiliko dute. Miski Hegoamerikako umeei laguntzeko sortutako erakundea da.

Lehiakide gogorrak

Pilar ikastetxeak azken urtea du aurten, eta hamazazpi ikasle daude, gaur egun, laugarren mailan. Hala, jakin badakite, beste ikastetxe batzuen aldean gogorrago saiatu beharko direla. Izan ere, lehiakide gogorrak dituzte, ehunka ikasleko ikastetxeak, tartean. “Madril eta Bartzelona moduko hirietan ikastetxeak handiagoak dira, eta ikasle gehiago daude materiala biltzeko. Gainera, inguruan ere enpresa eta denda gehiago dituzte, eta, beraz, erraztasun handiagoa dute”, nabarmendu du Luciak. Azken urteetako esperientzia baliagarria izango dela uste du, hala ere, Saray Rodriguez ikaskideak. Maiatza arteko epea dute materiala biltzeko, eta orain artean ate joka joan diren lekuetan oso harrera ona egin dietela azaldu dute. “Enpresek ez dituzte toner eta kartutxo hutsak behar, eta guk pisu bat kentzen diegu, lan bat, horiek ezin direlako edonora bota”, nabarmendu du Miriamek. Hala, lagundu nahi duten guztiei material hori gordetzeko eskatu diete, eurek gustura asko jasoko dutela-eta.

Ikastetxeek biltzen duten materialaren arabera sariak jarriko ditu Recoatlantico enpresak. Lehiakide guztien artean 30.000 puntutik gora batzen baldin badituzte, 6.000 euro banatuko dituzte lehenengo gelditzen diren hamabost ikastetxeen artean. 1.800 euro jasoko ditu lehenengoak, 1.000 euro bigarrenak, 700 hirugarrenak, eta gainerako guztiek 500 eurona. 30.000 puntutik gora lortuz gero, sariak handiagoak izango dira, eta, alderantziz, gutxiago batuz gero, txikiagoak. Saiatzeak merezi du hortaz.

Pontevedrako (Galizia) Recoatlantico enpresak antolatzen du urtez urte lehiaketa hori. Informatika alorreko enpresa da Recoatlantico, eta atzera gelditutako materiala biltzen du. Jasotako materialetik ahal den guztia birziklatzeko konpromisoa hartu du, eta zeregin horretan harreran estua du ikastetxeekin. Bildutako kartutxo hutsen truke, enpresa horrek diru bat ematen die ikasleei, eta diru hori ingurumenari lotutako ekintzak egiteko baliatzen dute gero haiek. Era berean, material gehien biltzen duten ikastetxeentzako sari ekonomikoak ere baditu Recoatlantico, pizgarri modura. Ingurumenarekiko kezka eta konpromisoa ume-umetatik bultzatzeko modua da enpresaren arabera, eta Pilar ikastetxeak bat egin du helburu horrekin. Orain bi urte eskola curriculumean jaso zuten birziklapena, eta, aurten, lehiaketa horretan parte hartzen duten hirugarren urtea dute. Iaz, hamaikagarren egin zuten, eta duela bi urte, berriaz, bigarren.

Lan handia dela aitortu du Lucia Bilbaok, Pilar ikastetxe laugarren mailako ikasleak. Hala ere, ahaleginak merezi duela dio: “Natur ingurunea zaintzeko balio du, toner edo kartutxo hutsak asko kutsatzen dutelako eta kalte handia egiten diotelako, esate baterako, gure ibaiei. Aldi berean, diru pittin bat ere jasotzen dugu, gainera.”. Laser kartutxo bat edo toner bat ekoizteko hiru litro petrolio behar dira, eta erabilitako askok zaborrontzian amaitzen dute.

Urriari hasi zen berez, lehiaketa, baina Pilar eskolako ikasleek irailan ekin zioten dendaz denda eta enpresaz enpresa toner eta kartutxo hutsak biltzeari. Eskola orduz kanpo jasotako material hori guztia saikatu, zenbatu eta kaxetan sartzen dute gero ikastetxean, Galiziararen bidaltzeko. Halaxe azaldu du Miriam Osoro ikasleak: “Kartutxo guztiek ez dute berdin balio. Recoatlantico tarifa batzuk zehaztuta ditu, eta guk materiala hara bidali aurretik ondo zehaztu behar dugu zer bidaltzen dugun, gero zenbat diru jasoko dugun jakitzeko. Beraiek ere zenbatzen dute bidaltzen duguna, baina hobe guk aurrez ere zenbatzea,

Egunkaria
libre!

munduan libre
bizi ahal izateko
Egunkaria
libre munduan
bizi ahal izateko

Azaroaren 28an, zapatuan eguerdiko 12:00etan Foruen plazan

**Elgoibartarron ELKARTASUNA erakusteko
ERRETRATUA atera behar dugu
Zabaldu mezua zure inguruan!**

Egun horretan, Egunkariaren aldeko KAMISETAK eta BONOAK salduko dira plazan

ZEZEN-BIDE



AUTO ESKOLA

Autorako B agiri teorikoa **18 urte bete baino lehen** eskura dezakezu!

Ordenagailu bidez teoria ikasteko gela berria!



ORDUTEGIA

10:00etatik-12:30era

15:00etatik-20:30era

LEKUALDAKETA

San Frantzisko, 52 behea

Tel. 943 742 720

20870 ELGOIBAR

- Euskarazko eta gaztelarazko klaseak
- Kreditutxarekin ordaintzeko erraztasunak



Gremioen

GIDA



Aroztegiak

Asima

Mota guztietako arotz lanak
Ermuaranbide, 18
☎ 687 15 02 26
☎ 650 02 66 31

Biena

Neurrira egindako lana
Ermuaranbide, 16
☎ 943 74 31 16

Garcia

Aluminioa eta PVCa
P. Muguruza, 30
☎ 943 74 32 38

Imar

Aroztegia
Olaso 15,55 pabilloia - A1
☎ 943 53 14 71
☎ 609 05 49 78
Era guztietako arotz-lanak

Lodoso Leihoak

Sigmako industrialdea
Xixillon 2-2. pabilloia - 3. zenb.
☎ 943 74 34 90
Faxa: 943 74 73 12
www.fjodoso.euskalnet.net

Ulazia

Aroztegia eta enbalajeak
Santa Klara, 10
☎ 943 74 05 47



Iturgintza, berogailua, eguzki energia, gasa eta klimatizazioa

Ibámar

Bernardo Ezenarro, 2
☎ 943 53 18 47
☎ 647 463 436 (Floren)

Ongi

Olaso Poligonoa, 15-68 pabilloa
☎ 943 74 28 80

Pagoaga

San Antolin, 13
☎ 943 74 02 79

Pagoerota

Herriko Enparantza, 10 behea
MENDARO
☎ 943 75 60 44/659 33 43 23

Tellabide

Azpilgoeta, 7 - MENDARO
☎ 943 75 50 62/607 75 50 62

Santana Iturgintza eta Instalazioak

Urasandi, 17
☎ 943 74 05 30/605 71 49 05
Faxa: 943 53 18 25

Zubizarreta Instalazioak

Ubitarte, 5 behea
☎ 943 74 07 89/650 58 61 44



Proiektu eta erreformak

Estudios Arrillaga

Errosario, 15 behea (Elgolbar)
☎ 943 744 055/943 744 019
Arragueta, 12 behea (Eibar)
☎ 943 200 698



Elektrizitatea

Carranza

Lehen Aramar, orain Carranza
Morkaiko, 1
☎ 943 74 12 80

Azpeleta

San Frantzisko, 51
☎ 943 74 12 38

Joseba

Urasandi, 22
ELGOIBAR
☎ 659 934 964

Urzelai

Santa Ana, 12-14
☎ 943 74 13 76



Igeltseritza

E. Arandia

Urasandi, 22 behea
☎ 605 70 52 04

Lanusta

Etxe barruko erreformak
☎ 636 375 323
www.lanusta.net



Autoentzako tindatutako kristalak

Glas Control S.L.

Olaso 27, 47. pabilloia
☎ 943 74 30 94



Sarrailagintza

Giltzak

Arragueta, 3 (Eibar)
☎ 943 701 391
www.giltzak.com



Lorezaintza

Pagoa loradenda

Nafarroa plaza 1
☎ 943 74 01 89
☎ 688 631 307



Pinturak

Biok dekorazioa S.L.

Santa Klara, 26 behea ezk.
☎ 943 74 15 52
☎ 606 43 11 19-20

Ipintza

Foruen enparantza, 4
☎ 943 74 04 40
☎ 607 74 04 40

Ku Kolorea

Urasandi kalea, 26 behea
☎ 943 74 88 43
☎ 660 52 25 87

